

## Itzulera

J

akintza *light*aren kontuarekin, Ur, Katixa, beste nonbait ere aipatu dudan idazle bat ekarri nahi nuke hona, Paulo Coelho, zeina Euskal

Herriko Unibertsitateko uda ikas-tarotan aritu baita... hizlari idatzi behar nuen baina maisu hobe doakiola erabaki dut.

Hemen sumindu egin beharko nuke, nola liteke jakintzaren esparru izan beharko lukeen erakunde batek halako idazlea ekarri izana eta abar eta abar, baina ez dut eginen, ez dakit nire zinismoaren seinale, edo jada gauza gutxi harritzen nautilako arrasto.

Kontua da Paulo Coelho aritu dela bertan. Eta kontua da Paulo Coelho hau iruzurti bat dela, edo makurrago, esaten dituenak sinetsi egiten dituela.

Paulo Coelho jakintza *light*aren adibide argigarria da. *Berriako* berria nola bukatzen den kopiatuko dizuet hemen: “Jendearen harremanetik ateratzen ditut istorioak eta gogoetak”. Santiagora erromes egindako bidaia garrantzitsu hartan, duela hogeitau urte inguru, “bakardadea” ere sentitu zuen beste zenbait gauzaren artean. Jendearekin harremanetan jartzeko hainbat herritan liburu sinadurak egitea otu zitzaion. Deitu zuen herri horietara: “Hasieran ez zidaten sinesten neu nintzela, eta nire argitaletxera deitu behar izaten zuten ni nintzela egiaztatzeko. Bitxia da: nik ezin nuen esan ni nintzela, nire argitaletxeak baizik?”.

Pasarte, onartuko didazue, Katixa, Ur, zukutsua da, eta klausura fraileek bakarrik ematen dituzten orduekin alderatzea baino ez dago Coelho buruz lehen esandakoa berritzeko.

Beharbada jakintza eta dirua nahasteari buruzko arbuioa nire aurrejuzku bat baino ez da, nire aspaldiko garai marxistako azterna aldrebes bat.

Gora beraz merkatua! Euskal kritikari batek dioen bezala, jauziak jauzi, jakina, Euskal Literaturako belau-naldi zaharkoa, tropelekoak deitutako horiek, eta gazteagoak desberdintzen gaituen ezaugarri bat horixe da hain



JUDIT FERNANDEZ

Juanjo Olasagarre

Agirre

Apalategi

zuzen: merkatuarekin (hedabideekin) dugun harremana.

\* \* \*

Ur, ni ere aritu naiz Olinpiadak ikusten, eta egia aitortu behar baldin badut gutxi kezkatu naiz Txinan egiten dituzten giza eskubideen urraketekin. Niri Txina arrotza egiten zait, oso. Bertako gertakariak ezin irudikatzeke adina eta horrek, jakina, urrundu egiten nau bertako politika ulertzetik. Badakit, hala ere, denok mandarina ikasten hasi beharko ginatkeela, Rafa Egigurenek aspaldi egiten zuen moduan.

\* \* \*

Abuztua irakurtzen eman dut, denbora bizitzeko modurik hobereana, baina ez lan liburuak baizik eta sudurraren puntan paratu zaidana, horretarako geunden udan. Eta halaxe irakurri ditut Lizarralderen *Inagaitzaz*, Larrepetit baino gutxiago gustatu zaidana; Gabilondoren *Nazioaren Hondarrak* gomendagarria, J. I. Basterretxearen *Mandatariaeren Gerra*, Harkaitz Zubiriren *Zakur Kale*, ipuin irakurle txarra izanik gustatu zait hala ere; Joseph Rothen *Judios errantes*; Roman Gariren *La vida ante sí*, eta Abraham B. Yehoshuaren *La novia liberada*, besteak beste. Zain gelditu zaizkit batzuk, Castillo Suarezren *Souvenir*, esaterako.

Eta orain mahaia garbitzen hasi behar dut, aurreko proiektuko liburuak bildu, paper zaharrak bota, hautsa kendu, batez ere hautsa kendu.

Bihar jarriko naiz leitu beharreko liburuen zerrenda egiten. Mahaiaren eskuin aldean zintzilikatuko dut, iazkoa dagoen toki berean zeinetatik erdiak ere ez baitituz irakurri: *Ashbery*: bukatu. *Divina Comedia*: bukatu. *Sofia de Melo*: bukatu. *Seduzitzaielen egunerokoa* (Kierkegaard): bukatu. “Ez estutu motel –lasaitu natzaio nire buruari–, gaur egun ezinezkoa duk jakintsua izatea. Ez zegok modan, gainera”. ■



Abuztua irakurtzen eman dut, denbora bizitzeko modurik hobereana, baina ez lan liburuak baizik eta sudurraren puntan paratu zaidana, horretarako geunden udan

